



7. FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure enpresako funtsezko baliabideak honako hauek dira:

Lehenik eta behin, **baliabide fisikoak** aipatuko ditugu. Batetik, instalazio nagusiak ditugu, hau da **lokala**, bezeroei ongietorria egiteko, erreserbak egiteko, arropak alokatzeko edo erosteko, ibilbidea zehazteko, ordainketak egiteko... Bestetik, gure bezeroek **ostatuan** gelditzeko aukera izango dute, lotarako eta otorduak egiteko. Azkenik, bezeroek aparkalekua izango dute eskuragarri, nahi izanez gero autoak, furgonetak, autokarabanak uzteko.

Baliabide fisikoekin jarraitzeko, lokalaren barruan ere **bulego** bat daukagu lankideen artean bilerak egiteko eta enpresaren nondik norakoak hitz egiteko eta zehazteko. Gure enpresan, garrantzia handia ematen diogu kutsadura murrizteari eta natura babesteari. Horreagatik eskuragarri jartzen diegu bezeroei ekologikoagoa den ibilgailu bat, **autobusa**, Iratiko basora eramateko. Izan ere, modu honetan saihestuko genuke auto pila bat bueltaka ibiltzea, eta inguruneari kalte gutxiago egingo genioke. Autobusaren barruan wifi zerbitzua eta mugikorrek kargatzeko aukera eskainiko dugu.

Hauekin bukatzeko, **sistema informatikoak** aipatu behar ditugu. Hauen barruan web orria eta telefonoa egongo lirake. Web orriaren bidez, bezeroek informazioa bilatu eta gure enpresaren ezaugarriak ikusi eta erreserbak egin ditzakete. Bezeroen eskura telefono bat jarriko dugu, edozein galdera edo zalantzak argitzeko eta erreserben kudeaketan laguntzeko.

Baliabide intelektualekin hasteko, gure enpresaren **ideia patentatuta** egongo da, bai irteeraren ideia eta baita arroparena ere. Gure irteeretan hainbat **profesionalek** parte hartuko dute, esperientzia ahalik eta aberasgarrien izan dadin, hala nola:

- Biologoa
- Psikologoa
- Hezitzailea
- Botanikan aditua
- Basozaina
- Begiraleak

Giza baliabideei dagokienez, **taldekide** bakoitzak bere betebeharrak eta funtzioak izango ditu eta hauek dira funtzio horiek :

Maddi Ormaetxea: Web gunearen prestaketa eta antolaketaz arduratuko da, eta horretaz gain, sare sozialak eta publizitateaz ere arduratuko da.

Ianire Azevedo: Online eta telefono bidezko erreserben ardura izango du eta horiei jarraipena eman beharko die, baita gurekin lanean arituko diren profesionalekin kontaktatu beharko du, irteeren berri emateko.

Nahia Cuadrado: Administrazio eginkizunaz arduratuko da (diru sarrerak eta diru irteerak) baita enpresako langileen nominak eta kontratuak kudeatu beharko ditu.

Maddi Usarralde: Bezeroekin izango ditugun harremanez arduratuko da, hala nola; informazioa partekatzeko, ibilbideetan informatzeko... Irteeren antolaketaz ere arduratuko da, horretarako profesionalekin koordinatuko da. Bera izango da irteeretara joaten den Psikologoa.

Azkenik, **finantza-baliabideen** kasuan, aurrezki batzuk ditugun arren, inbertsore batzuk beharko ditugu, gure proiektua aurrera atera ahal izateko. Behin enpresa martxan dagoela, bezeroek haien zerbitzuarengatik ordaintzen dutena, modu ezberdinetan ordaintzeko aukera eskainiko zaie, hala nola; esku dirutan, txartelarekin edo online bidezko ordainketak.